



# AMILTXORI ARRUNTA, GAUEKO BELEA

Testua eta argazkiak: Joxe Ramon Aihartza


**N**ORMALEAN naturaz edo bereziki fauna eta floraz aritzean, espezieen desagertzea edota populazioen murrizketa aipatu beharrez izaten gara. Eta derrigorrezkoa zaigu gainera. Izan ere gizarte industrializatuak, eta gizakiaren inguruarekiko ihar-duera basatiak, ingurune eta ekosistema gehienak degradatu egin bait dituzte. Edonola ere, azken urteotan zenbait espezie errekupeazio-bidean hasiak direla esan daiteke, bai beren bizilekuak zertxobait hobeto zaintzen ditugulako, eta bai oro har haiekiko presioa maila batean behintzat arindu egin dugulako. Ardeidoak (hots, lertxun, lertxuntxo, txori-zezen eta amiltxoriak biltzen dituen taldekoak) egoera honetan daudela esan genezake; pixkanaka populazioak hazten eta bizilekuak zabaltzen ari bait dira Europan.

Amiltxori arrunta (*Nycticorax nycticorax*) 58-65 cm-ko luzerako ardeido txiki eta dotorea dugu, eta oraindik urri samarra bada ere, pixkanaka ugaltzen eta habitat desberdinak betetzen ari dela esan genezake, bai Euskal Herrian eta baita Europako erdialde eta hegoaldean ere.

Bere itxura orokorrari dagokionean, amiltxoria ezin esan daiteke ardeido tipikoa denik: lepoa, mokoa eta zangoak laburragoak ditu lertxun eta lertxuntxoek baino, eta soina biribilagoa, honek hegaztiaren bizimodu zuhaitzitarra eta landaretza trinkoan moldatzeko egokitasuna adierazten dizkigularik. Bizkarra beltza du, distira-

*Amiltxori arruntaren fitxa tekniko eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.*

FITXA TEKNIKOA	AMILTXORI ARRUNTA
ESPEZIEA:	<i>Nycticorax nycticorax</i>
FAMILIA:	ARDEIDOAK
ORDENA:	ZIKONIFORMEAK
KLASEA:	HEGAZTIAK



tsua, sabela zuria, eta hegalak berriz gris hauskarak. Burua berriz beltza izaten du gaineko aldetik, eta aurpegi zurian begi gorri biziak deigarriak dira oso. Garondoan bi edo hiru luma zuri fin eta dotore izaten ditu araldian, apaingarri

gisa. Mokoia (sendoa eta kolore beltzekoa) ehizerako tresna bikaina du, eta hatz luzez hornitutako hanka horiak berriz, landaretzan mugitzeko moldapen egokiak dira.

Amiltxori arrunta hegalaria bikaina da, baina aldi berean lirain-



**Ingurune-baldintzak egokiak badira behintzat, kolonia bikainak sor ditzake amiltxoriak. Euskal Herriari dagokionean, kolonia bikain samarrak osatzen ditu gure bi ibai garrantzitsuetan.**

tasun handiz mugitzen da lurrean ere, eta sarritan amiltxori gazteak untzetat har daitezke. Hegazti honek ilunabarrez eta gauez dihardu batez ere. Egunez berriz, urmael eta aintziren inguruko landaretza zuhaizkara eta ibai-bazterretako begetazioan kokaturiko atsedenekuetan ematen ditu orduak erdilo. Eguzkia beherantz hasten denean ordea, bazkarako garaia iristen zaio amiltxoriari, eta karraka latz ozenez ibai eta aintziretako urazaletara abiatzen da jatera. Ohitura gautarra eta “kantu” lakarra direla medio, amiltxoriak ongi mezeria du bere izen zientifikoa: *Nycticorax*, edo “gaueko belea” alegia.

Lertxunen taldeko hegazti bitxi honek, ibilian, hegan, edo zain egonda ehizatzen ditu bere harripakinak, eta lan horretarako talde handitan bil daiteke. Bere ohizko ehizakien artean batez ere intsektu urtarrak, krustazeoak, igel eta uhandreak, arrain txikiak, eta tar-teka ugaztun txikiren bat edo beste ere suertatzen dira, azken hauek ur-ertzetan harrapatzen dituelarik.

Bestalde, amiltxori arrunta hegazti migratzailea da. European biztanle udatiar gisara dugu, eta ne-  
guk Afrikan egiten ditu; Saharatik hegoaldera, Senegaletik Afrikako Erdialderaino. Apiril inguruan Euskal Herriara iritsi, eta ugalketarako prestaketan hasten da, lan hau burutzeko, eta ingurune-baldintzak egokiak badira behintzat, kolonia bikainak sor ditzakeelarik. Habia

gehienetan, zuhaitzetan —sahats eta tamarizetan bereziki— eraikitako adartxo osatutako egitura konikoa izaten da. Hala ere, batzuetan lezkadian bertan ere egoki daiteke, honelakoetan habia lezken

hostoak eraitsi eta tolestuz egiten duelarik.

Maiatzean, amiltxoriak 3-5 arrautza berde-urdinska jartzen ditu. Bestalde, lehen habia galtzen baldin bada, bigarrena egiteko gai izan daiteke ekain aldera. Txitoak 21 egunen buruan jaioko dira, eta hauek beste 40-50 egun beharko dituzte, beren lumajea osatu eta hegarako ariketak egiten hasteko. Bitarte horretan, txitatze-lanak, eta txitoen zaintza eta elikadura, arak eta emeak elkarlanean burutzen dute.



**Hegazti honek ilunabarrez eta gauez dihardu batez ere. Egunez berriz, urmael eta aintziren inguruko eta ibai-bazterretako begetazioan igarotzen ditu orduak erdilo.**

